



Fitxa honetan aztergai dugu zer perpaus mota (-TZEA, -TZEKO, -TZEN...) hartzen dituzten honako aditz hauek:

espero izan, behar izan, nahi izan, esan, agindu, ahaztu, eskatu...

Fitxa egiteko, *EUSKAL GRAMATIKA: LEHEN URRATSAK-VII* (perpaus jokatugabeak) liburua izan dugu oinarri, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak 2011n argitaratua.



[EUSKAL GRAMATIKA: LEHEN URRATSAK-VII \(PERPAUS JOKATUGABEAK\)](#)

Eta espero dugu...



- Espero dugu fitxa hau zuen interesekoa **izatea**.
- Espero dugu fitxa hau interesgarri **izango zaizuela**.
- * Espero dugu fitxa hau interesgarri **izan dakizuen**.

*Espero izan aditzak -TZE*A perpausa hartzen du, edo geroaldiko aditza duen perpausa, baina **ez** subjuntiboa.



- Adibidez, ez **dugu espero** Chicagon, 1930eko hamarkadan, gangster batek garajea suziri espazial bat aurkit**zea**.
- Musika-konposizio bat entzuten dugunean, melodia edo motiboa errepikat**zea** **espero dugu**.
- **Espero dugu** filmaren lehen zatian azaldu diren pertsonaia nagusiak bigarren zatian ere agert**zea**.
 - *Espero dugu (...) pertsonaia nagusiak bigarren zatian ere ager daitezela.
- Muntaketak istorioko gertaeren maiztasuna errespetatu**ko duela** **espero du** ikusleak.
 - *Muntaketak istorioko gertaeren maiztasuna errespetat dezala **espero du** ikusleak.
- Jargoi hori hainbeste aldiz ikusita, azkenerako automatikoki erabil**ko** eta ulertu**ko duzula** **espero dugu**.
 - * (...) automatikoki erabil eta uler dezazula **espero dugu**.
- Artikulu honen bidez, **espero dugu** laburtuta geratu**ko zirela** kolektibo gisa egiten dugun lanaren zenbait alderdi.



-TU NAHI IZAN / -TZEA NAHI IZAN

Perpaus osagarri bat edo bestea erabiltzeko, perpausetako subjektuen erreferentziakidetasuna hartu behar da aintzat: alegia, bi perpaussek (osagarriak eta nagusiak) subjektu bera edukitzea edo ez.

-tu nahi izan: [+ erreferentziakideak]

- **Ikasleek** termino jakin baten esanahia aurkitu nahi badute, hitz hori aurkibidean kontsultatzeko aukera izan behar dute.

(#...esanahia aurkitzea nahi badute...)

- *ikasleek* nahi izan
- *ikasleek* aurkitu

-TZEA perpausaren orde, subjuntiboa erabil daiteke; -TU perpausaren orde, aldiz, ez.

•# **Ikasleek** termino jakin baten esanahia aurkitu **dezaten** nahi badute...

-tzea nahi izan: [- erreferentziakideak]

- **Ikasleek** termino jakin baten esanahia aurkitzea nahi badu irakasleak, hitz hori aurkibidean kontsultatzeko aukera eman behar die.

- *irakasleak* nahi izan
- *ikasleek* aurkitu

• **Ikasleek** termino jakin baten esanahia aurkitu **dezaten** nahi badu irakasleak...



-TU BEHAR IZAN / -TZEA BEHAR IZAN

Aditz honetan ere subjektu-erreferentziakidetasunaren baitan dago -TU perpausa edo -TZEA perpausa erabiltzea.

-tu behar izan: [+ erreferentziakideak]

• Produktoreak aurrekontua prestatu behar du eta zehaztu filmazioa hasi aurreko kostuak.

(#Produktoreak ...prestatzea behar du..)

- *produktoreak* behar izan
- *produktoreak* prestatu, zehaztu

-TZEA perpausaren orde, subjuntiboa erabil daiteke; -TU perpausaren orde, aldiz, ez.

• # Produktoreak (...) aurrekontua prestatu behar du...

-tzea behar izan: [- erreferentziakideak]

• Bi molekula horiek bereizten ez dituen errektibo batek haietako batekin —eta ez bestearekin— erreakzionatzea behar dugu.

- *guk* behar izan
- *erreaktibo batek* erreakzionatu

• (...) errektibo batek haietako batekin (...) erreakziona dezan behar dugu.



-TZEKO ESAN/ -TZEA ESAN

-TZEKO ESAN = agindua, eskaria

-TZEA ESAN = adiera, esanahia,
aditzera ematea, izena ematea

- Lau urte dituenean, berriz, haurrak zenbatu egingo du, eta bost gaileta ekart**tzeko** esaten badiozu, bost ekarriko dizkizu.
- Taularen gainean pieza batzuk jart**tzeko** esaten die irakasleak ikasleei, konturatu daitezten nola "eraikitzen" diren eraikinak.

- Bi punturen arteko biderik laburrena kalkulatzeko modu horri bidea integrat**ztea** esaten diote.
- Prozesu horri datuak berreskurat**ztea** esaten zaio.
- Morfologiak, hitzez hitz, forma aztert**ztea** esan nahi du.

- *Irakasleak gai haiei buruz zer genekien idaztea esan zigun.



-TZEKO AGINDU/ -TZEA AGINDU

-TZEKO AGINDU= agindua, ordena

-TZEA AGINDU= agintza, promesa

- 1846ko urrian, garbitzeko konketa batzuk jarrarazi zituen erditze-gelan, eta eskuak garbit**zeko** agindu zien ikasleei.
- Baina gerrak eragindako ekonomia-krisiaren eta paper-eskasiaren ondorioz, Francoren gobernuak hainbat egunkari baterat**zeko** agindu zuen.
- Dietarik edo ariketa fisikorik gabe pisua galt**zea** agintzen du produktu horrek.
- Zelulitisa gutxit**zea** agintzen duten iragarkiak kritikoki aztertu behar dira.



-TZEA AHAZTU/ -TZEN AHAZTU

-TZEA AHAZTU = egin behar zen zerbait ez egitea

- Bere ohiko errutina aldatu ostean, aita saiatu bati haurtzaindegirako bidea hartzea ahaztu zitzaion, eta, horren ordez, unibertsitaterako ohiko bidea hartu zuen, lanera joateko.
- Maiz samar egiten den akats bat da eskala grafikoetan unitateak adieraztea ahaztea.

-TZEN AHAZTU= zerbait nola egiten den ahaztea

- Denboraren joanean, gero eta memoria-galera handiagoak izaten dituzte Alzheimerren gaixotasunak jotako pertsonak, eta eguneroko bizitzako gauza batzuk egiten ahazten dute.
- Futbolari horrek oraindik ez du ahaztu golak sartzen.



-TZEKO ESKATU/ -TZEA ESKATU

Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak, EGLU-VII liburuan, *eskatu* aditzaren egitura prototipikoa dakarkigu, honako honetara bil daitekeena:

-TZEKO ESKATU DIO/ZAIO

(norbaitek zerbait egiteko eskatu norbaiti)

- Zuzendariak begiak gehiago irekitzeko eta pantailatik kanpora begiratzeko eska diezaioke aktoreari.

[(?)...kanpora begiratzea eska diezaioke aktoreari.]

- Neurtutako distantzia batean laster egiteko, oinez ibiltzeko eta bizikletan ibiltzeko eskatu zaio lagun bakoitzari.

[+ datiboa] › -TZEKO

-TZEA ESKATU DU/DA

(norbaitek zerbait egitea eskatu)

- Hori dela eta, profesional kritiko eta sortzaileenek museoen egitura sakon aldatzea eskatzen dute, museoak demokratizatzea.

[(?)...aldatzeko eskatzen dute, museoak demokratizatzeke.]

- Proportzioa gordetzea eskatzen da.

[-datiboa] › -TZEA



-TZEKO ESKATU/ -TZEA ESKATU

Badira, baina, salbuespen batzuk egitura prototipiko horretatik urruntzen direnak.

[+datiboa] Subjektua, hau da, eskatzen duena, abstraktua* bada > -TZEA:

- Gertaera hori leku, prozesu eta erritmo ezberdinetan gertatzen ari da (batzuetan, azkarrago eta nabarmenago; beste batzuetan, astiroago), eta **horrek** eskatzen **digu** orain arteko ez bestelako tresna metodologikoak erabiltzen jakitea. (horrek = gertaera hori leku, prozesu eta erritmo ezberdinetan gertatzeak)
- Artzain izanda zentzu guztia dauka internazionalista izateak, munduko baserritar guztiekin bat egiten dudalako nere ekimena aurrera eramaten dudanean. **Horrek** nekazari bezala ereduaren inguruko hausnarketa eta praktika bat eramateak eskatzen **dit**. (horrek = aurreko esaldian adierazitakoak)

**-TZEKO ESKATU/ -TZEA ESKATU**

Badira, baina, salbuespen batzuk egitura prototipiko horretatik urruntzen direnak.

[+datiboa] Subjektua bizigabea bada > -TZEA:

- Beste **film** batzuek, ostera, gure itzarobideak nolabait **doitzea** eskatzen **digute**.
- Horietako **makina** bakoitzak programa zehatz bat **garatzea** eskatzen **digu**.
- Deskarga egokia bada, **aparatuak** eskatuko **digu** deskargaren botoia **sakatzea**.



-TZEKO ESKATU/ -TZEA ESKATU

Badira, baina, salbuespen batzuk egitura prototipiko horretatik urruntzen direnak.

[+datiboa] Adierazpen generikoa*› -TZEA:

- **Ikusle batzuek** bizitzari buruzko irakaspenak jasot**zea** eskatzen diete **filmei**.
- Zuzendaritz**ari** etengabe jardute**tea** eta gauzak lort**zea** eskatzen zaio, eta hori ez da beti erraza gertatzen.
- Bai-ez erako galderetan, «bai» edo «ez» erantzute**tea** eskatzen zaio solaskide**ari**.
- Haur Hezkuntzan, familia-esparru afektibotik irtete**tea** eskatzen zaio haur**ari**, eta beste interesgune eta atsegin batzuk aurkit**zea**.

(* Egiletza zehaztugabea da.)